

## LOIRIK BAGA SORTU ZAN MARIA

---



Chori batek beiñ kontu au kantuz kontau eustan,  
 Zer lorategi baten anchiña gertatu zan,  
 Ta chori arek zelan onaren antza eukan,  
 Sinistu neutsan esan eustana bertsoetan.

«Nazareteko lorategia moteldurik  
 Aurkitzen zan da, lorak zimeltzen abiaurik;  
 Edertasuna eukielako maluskaurik,  
 Etzan aurkitzen euren artean poztasunik.

Au zan andia, baña lora bat Zerutarra  
 Neguan sortu an egiten da uste baga;  
 Bera usaiñez bera kolorez zan bakarra,  
 Iru mueta usain beragan eukazana.

Oi legez lorak goñean ziran iratzarri,  
 Baita buruak eguzkiagaz goruntz jagi,  
 Eta begiak ebezanean zabal jarri,  
 Laster zuzendu eutsezan sortu barriari.

Bera zan bada moduren baten larrosea,  
 Lirio zuri, ta bioleta umilldea,  
 Bera zan lora iñoz ikusi ein bagea,  
 Bat izan eta ainbeste loren ichurea».

Nik esan neutsan orduan: Chori kantaria,  
 Esan eidazu baña benetan gaur egia;  
 ¿Zelan deitzen zan alako lora zurgarria?  
 Diñost: loi baga sortu ta jayo zan Maria.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

